



AGINDUA, 2023KO EKAINAREN 29KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, LAN ETA ENPLEGU SAILAREN 2023. URTERAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUEN AGINDUA ALDATZEKOA.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoetako organoek edo bestelako enteek, dirulaguntzak ezartzea proposatzen dutenean, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte, alde zuzenetik, plana aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta. Manu horrek Estatuko oinarriko legeriaren izaera du.

Aurrekoa betetzeko, Lan eta Enplegu Sailaren 2023. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Agindua eman zuen Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak, 2023ko martxoaren 2an.

Ekainaren 28ko 138/2011 Dekretuaren bidez, Transferentzien Batzorde Mistoaren 2011ko ekainaren 22ko Erabakia onartu zen. Erabaki horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak betetzen zituen ikuskapen-eginkizun publikoaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak. Era berean, agindu zen erabakia osorik argitaratzeko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean, aipatutako dekretuaren eranskin gisa.

Halaber, dekretu horren bidez, une hartan Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Goi Mailako Kidegoan eta Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileordeen Kidegoan sartuta zeuden funtzionario-kidegoetako langileak eskualdatu ziren. Hartara, organikoki autonomia-erkidegoaren mendeko bihurtu ziren baina Estatukoak izaten jarraitu zuten, eta kidegoetarako sarbide bakarraren, deialdi bakarraren eta administrazioen arteko mugigarritasunaren printzipioei eutsi zitzaizkien.

Kidegoetarako sarbide bakarra izateak eta lan-ikuskatzailetzari buruzko eskumenen titular den ministerioak deialdi bateratua egiteak ondorio hau dakar sarbide-prozeduretan deitutako lanpostuak betetzeko orduan: bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten oso pertsona gutxi ausartzen da sarbide-prozesuan parte hartzera, garestia eta luzea delako, eta esleitzen diren destinoak estatu-mailakoak direlako.

Horren ondorioz, deitutako lanpostuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi diren pertsonak bete ohi dituzte, eta, ahal dutenean, estatu-mailako lekualdatze-lehiaketetan parte hartzen dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskatzailetzako lanpostuak hutsik geratzen dira berriro.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ





Abiapuntutzat hartuta giza baliabideek berebiziko garrantzia dutela, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegora eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Lan Ikuskatzaileordeen Kidegora sartzeari sustatzeko eta errazteko beharra ikusi da, Eusko Jaurlaritzaren mendeko Lan Ikuskatzailetzan dauden kidego horietako lanpostuak bete daitezela, eta, ondorioz, Lan Ikuskatzailetzaren zerbitzu publikoa kalitate onekoia izan dadin, herritarrek gogobetetze eta konfiantza handiagoa izateko eremu horretan.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegorako eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Eskalako Lan Ikuskatzaileordeen Kidegorako sarbidea prestatzeko laguntzen deialdia egitea, interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskatzailetzako lanpostuak eskuratu ditzaten eta arian-arian erdiets dadin Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskatzailetzaren plantillan lortu nahi den egonkortasuna.

Ekimen hori ez dago jasota sail honen 2023. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan; hori dela eta, plana aldatu behar da, indarrean dagoen legeria betetzeko.

Goian adierazitakoa kontuan hartuta, eta Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) emandako eskumenen arabera, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuarekin lotuta (Lan eta Enplegu Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Lan eta Enplegu Sailaren 2023. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuaren 2023ko martxoaren 2ko Agindua aldatzea, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzaren 10. dirulaguntza-lerroa gehituz: “Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegorako eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Lan Ikuskatzaileordeen Kidegorako sarbidea prestatzeko 2023. urterako laguntzak”, Agindu honen 1., 2. eta 3. eranskinetan deskribatutakoa.

Bigarrena.- Publizitatea eman dakiola agintzea, Lan eta Enplegu Sailaren webgunean argitaratuz eta, era berean, unean-unean ordenamendu juridikoan informazioaren eta gardentasunaren arloan aurreikusitako beste edozein xedapen aplikatu dakiola.

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA

LANEKO ETA GIZARTE-SEGURANTZAKO ZUZENDARITZA

LANEKO ETA GIZARTE-SEGURANTZAKO IKUSKATZAILEEN KIDEGORAKO ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNeko LAN-IKUSKATZAILEORDEEN KIDEGORAKO SARBIDEA PRESTATZEKO LAGUNTZAK

1. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

	1. helburu estrategikoa: Euskadiko Lan Ikuskatzailetza indartzen laguntzea, autonomia-erkidegoaren eskumeneko gaietan (lan-harremanak, segurtasuna eta osasuna eta enplegua).			
	10. dirulaguntza-lerroa: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegorako eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Lan Ikuskatzaileordeen Kidegorako sarbidea prestatzeko laguntzak.			
	Organoa: Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.			
Programa: 3112		2023	2024	2025
Helburua: Lan Ikuskatzailetza				
Ekintza: Beka-espeditenteak izapidetzea.				
1. adierazlea: Izapidetutako espeditenteen kopurua		6	6	6

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoak, finantzaketa publikoa orotara hartuta

1. helburu estrategikoa: Euskadiko Lan Ikuskatzailetza indartzen laguntzea, autonomia-erkidegoaren eskumeneko gaietan (lan-harremanak, segurtasuna eta osasuna eta enplegua).						
10. dirulaguntza-lerroa: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegorako eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Lan Ikuskatzaileordeen Kidegorako sarbidea prestatzeko laguntzak.						
Organoa: Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.	2023		2024		2025	
Programa: 3112	Zenbateko oa (€)	%	Zenbateko oa (€)	%	Zenbateko oa (€)	%
<i>4. kapitulua:</i>	3.300 €	% 100	39.600 €	% 100	39.600 €	% 100
Guztira:	3.300 €	% 100	39.600 €	% 100	39.600 €	% 100
4. kapitulua, guztira:	3.300 €	% 100	39.600 €	% 100	39.600 €	% 100
Dirulaguntza-lerroa, guztira:	3.300 €	% 100	39.600 €	% 100	39.600 €	% 100

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: **Sektore hartzailea(k) eta laguntza emateko prozedura**

1. helburu estrategikoa: Euskadiko Lan Ikuskatzailetza indartzen laguntzea, autonomia-erkidegoaren eskumeneko gaietan (lan-harremanak, segurtasuna eta osasuna eta enplegua).	
10. dirulaguntza-lerroa: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegorako eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Lan Ikuskatzaileordeen Kidegorako sarbidea prestatzeko laguntzak.	
Organoa: Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.	
Programa: 3112	
Sektore hartzaileak	Lizentziatura edo gradua duten pertsonak, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegora eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Lan Ikuskatzaileordeen Kidegora sartzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen dituztenak eta horretarako oposizioak prestatu nahi dituztenak.
Laguntza emateko prozedura	Laguntza konkurrentzia bidez ematea, deialdian ezarritako baremoak aplikatuta